

**EUSKADIKO UDAL-ARLO PUBLIKOKO  
AURREKONTU-ANALISIA**

**2016**



# **EUSKADIKO UDAL-ARLO PUBLIKOA 2016**

## **Aurkibidea**

1.	HITZAURREA .....	7
2.	DIRU-SARRERAK.....	11
2.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA.....	11
2.2	POPULAZIO-MAILAKA .....	18
3.	GASTUAK.....	25
3.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA.....	25
3.2	POPULAZIO-MAILAKA .....	29
4.	ZORPETZEA.....	33
5.	EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA.....	35
5.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA.....	35
5.2	POPULAZIO-MAILAKA .....	36
6.	ZERGA ITUNDUETAN UDAL PARTE-HARTZEA.....	37
7.	ERANSKINA .....	41

## Koadroen aurkibidea

1.1 Koadroa: Entitateen Lurralde Banaketa eta Sailkapena .....	8
1.2 Koadroa: Populazioaren banaketa udalerrien tamainaren arabera .....	8
1.3 Koadroa: Udalen sozietate publikoak. Jardueraren araberako sailkapena eta lurraldeko banaketa.....	9
1.4 Koadroa: Udalaz gaindiko enpresak. Jardueraren araberako sailkapena eta lurraldeko banaketa.....	10
2.1 Koadroa: Udal-arlo publikoko diru-sarrera bateratuen bilakaera. EAE guztira.....	11
2.2 Koadroa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa 2016an lurraldeka eta bilakaera aurreko urtearekiko .....	13
2.3 Koadroa: Diru-sarreraren iturri nagusiak kontzeptuen arabera. 2016.....	15
2.4 Koadroa: Biztanleko diru-sarrerak (Euro) .....	17
2.5 Koadroa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera .....	19
2.6 Koadroa: Biztanleko eta populazio-mailen araberako presio fiskala (€/bizt.).....	20
2.7 Koadroa: Zerga-bilketaren eraginkortasuna (%) .....	21
2.8 Koadroa: Presio fiskal handiena duten udalerririk (€/bizt.).....	22
3.1 Koadroa: Udal-arlo publikoaren gastu bateratuen bilakaera. EAE guztira.....	25
3.2 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka 2016an eta bilakaera aurreko urtearekiko.....	27
3.3 Koadroa: Udal-arlo publikoaren biztanleria okupatua.....	28
3.4 Koadroa: Biztanleko gastuak (euro).....	28
3.5 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera .....	30
4.1 Koadroa: Zorpetze-indizea orokorra eta lurraldeka (mila €).....	33
4.2 Koadroa: Zorpetze-indizea populazio-mailaka (mila €).....	33
4.3 Koadroa: Zor bizi formalizatua orokorra eta lurraldeka .....	34
4.4 Koadroa: Lurraldeka eta populazio-mailaka biztanleko zor bizi formalizatua (€) .....	34
5.1 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera lurraldeka (mila €) .....	35
5.2 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera populazio-mailaka (mila €).....	36
6.1 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzea .....	37
6.2 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzearen bilakaera (mila €).....	38
6.3 Koadroa: Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka (€) .....	38

## Grafikoen aurkibidea

2.1 Grafikoa: Udal-arlo publikoaren diru-sarrera bateratuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka. (%).....	12
2.2 Grafikoa: Diru-sarreraren lurralde banaketa. 2016 (%).....	12
2.3 Grafikoa: Udal zergak guztizko diru-sarreretan.....	14
2.4 Grafikoa: Diru-sarrerak udal zerga motaren arabera. (%) .....	14
2.5 Grafikoa: Transferentzia arruntak guztizko diru-sarreretan.....	16
2.6 Grafikoa: Kapital transferentziak guztizko diru-sarreretan.....	16
2.7 Grafikoa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka.2016.....	18
2.8 Grafikoa: Biztanleko diru-sarrerak (€) .....	20
3.1 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa orokorra eta lurraldeka: Egitura.....	26

3.2 Grafikoa: Gastuen lurralde banaketa. 2016 (%).....	26
3.3 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka: Egitura.....	29
3.4 Grafikoa: Gastuak biztanleko (€).....	31



## 1. HITZAURREA

Azterlan honetan udal-arlo publikoan sartu diren entitateak honako hauek dira:

- Udalerriak
- Udalerrien mendeko Erakundeak
  - Erakunde Autonomoak
  - Udal-sozietate publikoak
  - Toki-erakunde txikiak
- Udalergi-elkarteak
  - Kuadrillak
  - Mankomunitateak
  - Partzuergoak
  - Udalergi bat baino gehiago kide duten sozietate publikoak edo udalaz gaindiko sozietateak

Sozietate publikoak kontuan hartuko dira, udalen kapital sozialeko partaidetza % 50etik gorakoa bada.

2016. ekitaldiari dagozkion udal-entitateen aurrekontu-likidazioetako datuak, onartutako eskubideak eta obligazioak, aurkeztu dira. Datu horiek Eustatek bildu ditu “Sektore publikoaren aurrekontuen estatistika” eragiketan. Biztanleriari eta Barne Produktu Gordinari buruzko informazioa aipatutako erakunde berak argitaratu du.

2015. eta 2016. urteen artean, aztertu den udal-entitateen eta udalaz gaindiko entitateen kopuruak ez du izan aldaketa esanguratsurik, 5 gutxiago izan dira.

Urtetik urterako aldaketan jatorria bi dira: alde batetik, entitateak sortu edo ezabatzea eta, bestetik, lortutako erantzute-tasa, handiagoa edo txikiagoa izatea. Zehazki, 2016ko guztizko kopuruaren aldaketaren arrazoia honetan datza: 4 erakunde autonomo eta 4 udal-enpresa azterketatik kanpo geratu dira eta 2 kontzeju eta udalaz gaindiko enpresa 1 sartu dira. Azterlanetik kanpo geratu diren gehienak, desegin dira eta, neurri batean, bilketa handiagorekin konpentsatu da.

### 1.1 Koadroa: Entitateen Lurralde Banaketa eta Sailkapena

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
UDALERRIAK	51	112	88	<b>251</b>
TOKIKO ENTITATE TXIKIAK	334	4	2	<b>340</b>
ERAKUNDE AUTONOMOAK	7	49	37	<b>93</b>
UDAL-ENPRESAK	12	45	52	<b>109</b>
UDAL-ELKARTEAK	33	17	24	<b>74</b>
UDALERRI-ELKARTEEN ENPRESAK	0	4	14	<b>18</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>437</b>	<b>231</b>	<b>217</b>	<b>885</b>

Analisia lurralde historikoka eta mailaka egin da. Horretarako udalak 5 multzotan banatu dira.

### 1.2 Koadroa: Populazioaren banaketa udalerrien tamainaren arabera

	1. Pop.-maila <=1000		2. Pop.-maila 1.001-5.000		3. Pop.-maila 5.001-20.000		4. Pop.-maila >20.000 (Hirib. ezik )		5. Pop.-maila Hiriburuak		GUZTIRA
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
<b>ARABA</b>											
UDALERRIAK	28	54,9	19	37,3	3	5,9	0		1	2,0	<b>51</b>
POPULAZIOA	12.443	3,8	34.929	10,8	33.966	10,5	0		242.254	74,9	<b>323.592</b>
<b>BIZKAIA</b>											
UDALERRIAK	38	33,9	41	36,6	22	19,6	10	8,9	1	0,9	<b>112</b>
POPULAZIOA	19.156	1,7	97.526	8,6	230.795	20,3	449.552	39,5	342.397	30,0	<b>1.139.426</b>
<b>GIPUZKOA</b>											
UDALERRIAK	32	36,4	22	25,0	28	31,8	5	5,7	1	1,1	<b>88</b>
POPULAZIOA	12.585	1,8	49.036	6,9	298.687	41,9	171.935	24,1	180.558	25,3	<b>712.801</b>
<b>GUZTIRA</b>											
UDALERRIAK	98	39,0	82	32,7	53	21,1	15	6,0	3	1,2	<b>251</b>
POPULAZIOA	44.184	2,0	181.491	8,3	563.448	25,9	621.487	28,6	765.209	35,2	<b>2.175.819</b>

ITURRIA: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika

Lurralde-berezitasunak daude populazioaren banaketari dagokionez: Araban, populazioaren % 75 hiriburuan dago bilduta; Bizkaian, aldiz, populazioaren % 30 hiriburuan bizi da baina % 70era iristen da 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak kontuan hartzen baditugu; azkenik, Gipuzkoan, hiriburuan % 25 biltzen da eta, 20.000 biztanle baino gehiagokoak gehituta, % 49ra heltzen da.

Azkenik, aipatu behar dugu Gipuzkoan, Hernaniko udalerria populazio-maila aldatu egin dela, 4tik 3ra. Hori dela-eta, urte arteko konparaketa egiteko, 2015eko datuak berriro kalkulatu ditugu aldaketa hori sartuta.



Lurralde historikoka egiten den analisiak barne hartzen ditu udal-entitateen eta udalaz gaindiko entitateen datuak. Hala ere, udalaz gaindiko entitateak udalerrri zehatz batekoak ez direnez, populazio-mailaka sailkatuta eskaini diren datuak udal-eremuko entitateei buruzkoak dira<sup>1</sup>.

Datuen azterketa egokia egiteko, zerbitzu batzuen kudeaketan dauden berezitasunak kontuan izan behar ditugu (zabor bilketa, ur hornidura, garraio publikoa...). Horrela, Vitoria-Gasteizen, Amvisa da ur hornidura zerbitzuaren arduraduna. Bere datuak udalerrriaren datuekin multzokatuta dituen udal erakundea da, eta populazio-mailaka egiten den azterketaren barnean dago. Bilbon eta Donostian zerbitzu hau ematen dutenak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Añarbeko Urak dira, hurrenez hurren. Horiek udalaz gaindiko enpresak dira eta lurraldeka egiten den azterketaren barnean daude.

### 1.3 Koadroa: Udalen sozietate publikoak. Jardueraren arabeko sailkapena eta lurraldekako banaketa

JARDUERA	ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA					EAE								
POPULAZIO- MAILA	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G
Hiri-garraioa					1	1					1	1		0		1	1						3	3
Turismoa														2		1	3			2			1	3
Ura, zaborra eta garbiketa					1	1			1			1		1		0	1			2			1	3
Enplegu-sustapena									3	2		5						0			3	2		5
Kirol-instalazioak									2	1		3			2		1	3			2	2		6
Energia			1										1		5			6	1	1	5			7
Garapen-agentziak				1			1	2			1	4				1	1	2		1	3	1	2	7
Kultura										1	2	3			1		3	4			1	1	5	7
Beste batzuk								2	1	1	3	7				2	2	4		2	1	3	5	11
Lurra, hirig, etxebi.	2	3	1		2	8	11	5	4	1	21	2	7	14	4	1	28	4	21	20	8	4	57	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2</b>	<b>4</b>	<b>2</b>	<b>4</b>	<b>12</b>	<b>0</b>	<b>14</b>	<b>12</b>	<b>10</b>	<b>9</b>	<b>45</b>	<b>3</b>	<b>7</b>	<b>25</b>	<b>7</b>	<b>10</b>	<b>52</b>	<b>5</b>	<b>25</b>	<b>39</b>	<b>17</b>	<b>23</b>	<b>109</b>	

Datuetan jasotzen diren udal-sozietateen, % 48 Gipuzkoan kokatzen dira, % 41 Bizkaian eta % 11 Araban. Halaber, nabarmendu behar da lurra, hirigintza eta etxebizitza jarduerak betetzen dutela aztertutako udal enpresen % 52ren zeregina.

<sup>1</sup> Erakunde guztien datuak dituzten koadroak urdin kolorekoak dira, eta udal erakundeei dagozkienak, berriz, berde kolorekoak dira.

**1.4 Koadroa: Udalez gaindiko enpresak. Jardueraren arabera sailkapena eta lurraldekako banaketa**

JARDUERA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
HILTEGIAK		0	1	1
TURISMOA		0	1	1
LURRA, HIRIG. ETXEBI.		1	2	3
URA, ZABORRA, GARBIKETA		1	5	6
GARAPEN -AGENTZIAK		2	5	7
<b>GUZTIRA</b>		<b>4</b>	<b>14</b>	<b>18</b>

2016an jasotako udalez gaindiko enpresen % 78 Gipuzkoan kokatzen da eta gainerako % 22a Bizkaian. 2015ean aztertutako sozietateei turismo sailean kokaturik dagoen udalez gaindiko enpresa bat gehitu zaie.

## 2. DIRU-SARRERAK

### 2.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA

Diru-sarreraren bilakaerari eta ezaugarriari buruz hauxe nabarmendu behar dugu:


- 2016. ekitaldian udal-arloko diru-sarrera bateratuen zenbatekoa 3.623 milioi eurokoa izan da, hau da, 2015ean izandakoarena baino % 0,3 gutxiago (10 milioi euro gutxiago, gutxi gorabehera). Jaitsiera horren oinarrian udal-sozietate publikoen sarreraren beherakada dago (-% 12,7) eta, enpresa horien artean, aipatzekoa da Gasteizko hirigintza sozietateek izandako sarreraren beherakada.
- Izan ere, diru-sarreraren zenbateko bateratuaren urtearteko bilakaera lurraldeka ezberdina izan da. Araba izan da beherakada esanguratsua erakutsi duen lurralde bakarra (-% 8,9). Bizkaiak eta Gipuzkoak, berriz, gorakada izan dute (% 0,9 eta % 2,0, hurrenez hurren).
- Udalaz gaindiko enpresen diru-sarrerak % 1,1 jaitsi dira eta taldea osatzen duten 2 azpitaldeen bilakaera ezberdina izan da, udalaz gaindiko enpresak (% 1,8) eta mankomunitateak, partzuergoak, kuadrillak (-% 2,5).

#### 2.1 Koadroa: Udal-arlo publikoko diru-sarrera bateratuen bilakaera. EAE guztira.


	2015		2016		Δ%
	Mila €	%	Mila €	%	
<b>Udalak eta beren mendeko entitateak</b>					
Tokiko entitate txikiak	22.668	0,6	18.858	0,5	-16,8
Adm. erakunde autonomoak	119.543	3,3	112.578	3,1	-5,8
Sozietate publikoak	206.672	5,7	180.472	5,0	-12,7
Udalerriak	2.912.390	80,2	2.943.594	81,2	1,1
<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>3.261.273</b>	<b>89,8</b>	<b>3.255.502</b>	<b>89,9</b>	<b>-0,2</b>
<b>Udalaz gaindiko entitateak</b>					
Mankom., partzuergoak, kuadrillak...	250.204	6,9	243.881	6,7	-2,5
Udalaz gaindiko enpresak	121.562	3,3	123.740	3,4	1,8
<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>371.766</b>	<b>10,2</b>	<b>367.620</b>	<b>10,1</b>	<b>-1,1</b>
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA BATERATUAK</b>	<b>3.633.039</b>	<b>100,0</b>	<b>3.623.122</b>	<b>100,0</b>	<b>-0,3</b>

- Diru-sarreraren % 48 inguru transferentziak dira. Horietatik % 93 arruntak dira eta gainontzeko % 7a kapitalekoak. Zerga bidezko diru-sarrerak % 46 ingurukoak dira eta zorpetzearen pisuak, 2015ekoarekin alderatuz, gora egin du eta guztizko diru-sarreraren % 2 hartzen du. Sailkapen ekonomikoari dagokionez, ez dira ikusten lurralde historikoen arteko ezberdintasun nabarmenik.

**2.1 Grafikoa: Udal-arlo publikoaren diru-sarrera bateratuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka. (%)**



**2.2 Grafikoa: Diru-sarreraren lurralde banaketa. 2016 (%)**




## 2.2 Koadroa: Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa 2016an lurraldeka eta bilakaera aurreko urtearekiko

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Mila €	Δ % 16/15	Mila €	Δ % 16/15	Mila €	Δ % 16/15	Mila €	Δ % 16/15
Zuzeneko zergak	122.615	-3,4	302.717	1,9	241.890	-0,2	667.222	0,2
Zeharkako zergak	8.040	-5,8	26.509	29,9	16.208	5,6	50.756	14,6
Tasak eta best. zergak	114.927	-10,6	430.097	2,3	394.611	1,0	939.635	0,0
<b>Zerga -bidezko diru-sarrerak</b>	<b>245.582</b>	<b>-7,0</b>	<b>759.323</b>	<b>2,9</b>	<b>652.708</b>	<b>0,7</b>	<b>1.657.613</b>	<b>0,5</b>
Transferentzia arruntak	242.268	4,4	839.128	-3,7	546.754	0,6	1.628.150	-1,2
Kapital transferentziak	15.448	-50,6	67.364	-9,7	34.695	23,6	117.507	-12,3
<b>Transferentziak</b>	<b>257.717</b>	<b>-2,2</b>	<b>906.492</b>	<b>-4,2</b>	<b>581.449</b>	<b>1,7</b>	<b>1.745.658</b>	<b>-2,0</b>
Ondare sarrerak	9.848	-51,0	30.668	6,6	14.841	-8,0	55.357	-14,8
Inb. errealen besterentzea	5.100	8,2	20.821	-5,8	54.330	73,9	80.251	38,2
Finantza-aktiboak	617	-11,7	11.185	436,9	4.414	-57,8	16.217	22,5
<b>Bestelako diru-sarrerak</b>	<b>15.565</b>	<b>-39,0</b>	<b>62.674</b>	<b>18,4</b>	<b>73.585</b>	<b>27,2</b>	<b>151.824</b>	<b>11,4</b>
<b>GUZT. ZORPETZERIK GABE</b>	<b>518.864</b>	<b>-6,2</b>	<b>1.728.489</b>	<b>-0,5</b>	<b>1.307.742</b>	<b>2,4</b>	<b>3.555.095</b>	<b>-0,4</b>
Zorpetzea	14.223	-55,6	27.305	705,8	26.499	-11,7	68.027	4,0
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>533.086</b>	<b>-8,9</b>	<b>1.755.795</b>	<b>0,9</b>	<b>1.334.241</b>	<b>2,0</b>	<b>3.623.122</b>	<b>-0,3</b>


- Zerga-bidezko diru-sarrerak % 0,5eko batez besteko igoera erakusten dute. Talde honen barruan, bakarrik zeharkako zergek izan dute igoera nabarmena, baina eragin txikia izan du totalen. Lurraldeka, atzerakada handia ikusten da Araban (-% 7) eta, aldiz, igoerak Gipuzkoan (% 0,7) eta, batez ere, Bizkaian (% 2,9).
- Transferentzia arruntak % 1,2 jaitsi dira Bizkaian (-% 3,7) izandako bilakaera dela eta,. Kapital transferentzien portaera ere negatiboa izan da eta jaitsiera nabarmenena Araban (-% 50,6) gertatu da, batez ere Bizkaiko murrizketarekin (-% 9,7) eta Gipuzkoako aurrerapen sendoarekin (% 23,6) alderatuta.
- Zorpetze bidezko diru-sarrerak, nahiz eta Bizkaian bakarrik igo, orokorrean % 4 gora egin dute. Dena den, baliabideen % 2 baino gutxiago direla esan behar da. Azkenik, bestelako diru-sarrerako epigrafean urtetik urterako aldaketa zabalak ikusten dira hura osatzen duten kapituluaren ezegonkortasunagatik.

- Udal zergak diru-sarrera bateratu guztien % 19,8 dira, ia aurreko urtearen ehuneko berbera. Zerga zuzenak, zerga guztien ia % 93 dira eta udalerriei diru gehien ematen dien zerga OHZ da (Udal zerga bidezko diru-sarrera guztien % 52,0).

### 2.3 Grafikoa: Udal zergak guztizko diru-sarreretan



### 2.4 Grafikoa: Diru-sarrerak udal zerga motaren arabera. (%)




- Diru-sarrerak jarraitzen dira hiru kontzeptutan biltzen: foru aldundietako transferentzia arruntak (% 41,3), tasak (% 17,0) eta OHZ (% 10,3), kopuru osoaren % 68 baino gehiago dira.

### 2.3 Koadroa: Diru-sarreren iturri nagusiak kontzeptuen arabera. 2016


KODEA	DIRU-SARRERA KONTZEPTUA	Mila €	%
420	Foru Aldundiarenak	1.496.400	% 41,3
31	Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatiko tasak	615.277	% 17,0
112	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	373.230	% 10,3
113	Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	130.924	% 3,6
41	Euskal Autonomia Erkidegokoak	101.575	% 2,8
30	Salmentak	97.155	% 2,7
130	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	93.416	% 2,6
32	Tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboagatiko edo aprob. bereziagatiko tasak	73.795	% 2,0
720	Foru Aldundiarenak	69.720	% 1,9
114	Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	69.658	% 1,9
93	Jasotako epe luzerako maileguak	57.435	% 1,6
282	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	50.738	% 1,4
399	Beste hainbat sarrera	49.934	% 1,4
71	Euskal Autonomia Erkidegokoak	41.344	% 1,1
391	Isunak	37.692	% 1,0
60	Lurrena	33.442	% 0,9
	<b>GAINERAKOAK</b>	<b>231.386</b>	<b>% 6,4</b>
	<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>3.623.122</b>	<b>% 100</b>

- Transferentzia arruntak diru-sarrera guztien % 45 dira eta, gehienak, foru aldundietatik datoz (% 92). Kapital transferentziek puntu erdi bat egin dute atzera eta 2016ko diru-sarrera guztien % 3,2 dira: % 59 foru aldundietatik dator, % 35 Eusko Jaurlaritzatik eta Estatutik datozenak % 2,4 dira (2,8 M€).

## 2.5 Grafikoa: Transferentzia arruntak guztizko diru-sarreretan



## 2.6 Grafikoa: Kapital transferentziak guztizko diru-sarreretan





Azkenik, udal-arlo publikoaren biztanleko diru-sarrereren analisiak hau erakusten du:

- EAEko biztanleko diru-sarrerak 8 euro jaitsi dira batez bestekoa 2015. urtearekin alderatuta eta 1.665 euro dira. Horietatik bakarrik 31 euro dagozkio zorpetzeari.
- Gipuzkoako biztanleko diru-sarrerak (1.872 €/bizt.) Arabakoak (1.647 €/bizt.) edo Bizkaikoak (1.541 €/bizt.) baino askoz handiagoak dira, batez ere zerga bidezko diru-sarrerengatik (916 euro biztanleko Gipuzkoan eta 759 eta 666 euro biztanleko Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren)
- Transferentzia eta bestelako diru-sarreretan ere Gipuzkoa buruan dago eta zorpetzetik datozen diru-sarreretan, lehen postua Arabari dagokio.
- 2015. urtearekin alderatuz, biztanleko diru-sarrerak nabarmen jaitsi dira Araban (-% 9,2) eta igo dira Bizkaian (% 0,8) eta Gipuzkoan (% 1,7).

#### 2.4 Koadroa: Biztanleko diru-sarrerak (Euro)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Zerga bidezko diru-sarrerak	759	666	916	762
Transferentziak	796	796	816	802
Bestelako diru-sarrerak	48	55	103	70
Zorpetzerik gabe diru-sarrerak	1.603	1.517	1.835	1.634
Zorpetzea	44	24	37	31
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>1.647</b>	<b>1.541</b>	<b>1.872</b>	<b>1.665</b>

## 2.2 POPULAZIO-MAILAKA

Populazio-mailak kontuan hartuta, hau ikusten da:

- Oro har, populazioa handitzen den heinean, zerga-bidezko diru-sarreraren protagonismoa indartzen da. Horrela, pisu erlatiboa minimoa, % 32,0, udalerrri txikienetan gertatu da eta maximoa, % 44,8, hiriburuetan.
- Udalerrri txikienetan transferentziak garrantzitsuagoak dira, batez ere, kapital transferentzien kopuruagatik.
- Populazioaren tamaina ez da erabakigarria zorpetzearen pisu erlatiboan: horrela minimoa, % 0,6, 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrrietan ikusten da eta maximoa, % 2,9, hurrengo populazio-mailan (1.001-5.000 biztanleak).

2.7 Grafikoa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka.2016



- Zorpetzerik gabeko diru-sarrerak populazio-maila guztietan jaitsi dira. Zorpetzea kontuan hartuta, jaitsierak populazio-maila txikienean eta hiriburuetan irauten du.

## 2.5 Koadroa: Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera


	<=1.000		1.001-5.000		5.001-20.000		>20.000 Hirib. ezik		Hiriburuak	
	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %
Zerga-bidezko diru-sarrerak	24.171	-3,2	102.540	0,9	332.247	-0,6	334.262	0,7	598.932	0,9
Transferentziak	46.445	-9,6	139.157	-4,2	419.508	-0,7	429.618	-1,0	633.455	-1,6
Bestelako diru-sarrerak	4.575	-13,1	12.014	5,5	24.020	5,6	15.588	-7,4	73.736	3,8
<b>Zorpetzerik gabe diru-sarrerak</b>	<b>75.192</b>	<b>-7,9</b>	<b>253.711</b>	<b>-1,8</b>	<b>775.775</b>	<b>-0,5</b>	<b>779.468</b>	<b>-0,4</b>	<b>1.306.122</b>	<b>-0,2</b>
Zorpetzea	434	-54,0	7.650	290,3	9.406	200,9	20.364	280,7	29.763	-34,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>75.626</b>	<b>-8,4</b>	<b>261.361</b>	<b>0,4</b>	<b>785.181</b>	<b>0,3</b>	<b>799.832</b>	<b>1,5</b>	<b>1.335.885</b>	<b>-1,4</b>

Biztanleko diru-sarrerei dagokionez, populazio-mailaka, hau ikusten da:

- Biztanleko diru-sarrerak, hiriburuak osatzen duten populazio-mailan izan ezik, jaitsi egiten dira biztanleria hazten den heinean. Kontuan hartu behar dugu udal txikienek kopuru altuenak dituztela finantzaketarako foru funtsetako transferentzietan zenbateko minimoak jartzen direlako.
- Hiriburuak bigarren postuan daude biztanleko diru-sarrerren sailkapenean, zerga-gaitasun handiagoa dutelako eta hiriburuak foru funtsetan daukaten tratamendu bereziagatik.
- EAEko biztanleko batez besteko diru-sarrera 1.497 eurokoa izan da 2016an, 2015ekoa baino 8 euro gutxiago. Batez bestekoaren azpitik daude 1.001-5.000 biztanlekoak (1.440 euro biztanleko), 5.001-20.000 biztanlekoak (1.394 euro biztanleko) eta, batez ere, 20.000 biztanle-hiriburuak kanpoan utzita- baino gehiago dituzten udalerririk (1.287 euro biztanleko). Azken talde honek, biztanleko zerga-bidezko diru sarrerak eta biztanleko transferentziak txikienak ditu.
- Hiriburuen batez bestekoak hauek dira: 1.611 €/bizt. Vitoria-Gasteizen<sup>2</sup>, 2.188 €/bizt. Donostian eta 1.608 €/bizt. Bilbon.

<sup>2</sup> Vitoria-Gasteizko diru-sarrerren murrizketa, neurri handi batean, bere hirigintza sozietateetan izandako sarrerren jaitsieratik dator.

## 2.8 Grafikoa: Biztanleko diru-sarrerak (€)



## 2.6 Koadroa: Biztanleko eta populazio-mailen araberako presio fiskala<sup>3</sup> (€/bizt.)

POPULAZIO-MAILA	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
1. <=1000	183	69	8	42	42	343
2. 1.001-5.000	169	70	15	67	31	353
3. 5.001-20.000	169	68	17	44	28	325
4. >20.000 (Hiriburuak ezik)	163	55	20	34	18	290
5. Hiriburuak	181	56	58	44	21	360
VITORIA - GASTEIZ	192	56	92	42	23	405
BILBAO	143	53	27	40	21	283
DONOSTIA	237	61	73	54	20	445
<b>EAE</b>	<b>172</b>	<b>60</b>	<b>32</b>	<b>43</b>	<b>23</b>	<b>330</b>

<sup>3</sup> Presio fiskala: zuzeneko eta zeharkako zergen batuketa (tasak ez dira sartu kontabilizaziorako irizpideak ezberdinak izaten direlako).

Udal-zergak kontuan hartuta, hau ikusten da:

- Per capita presio fiskal orokorrak % 0,9 egin du aurrera 2015. urtearekin alderatuta, eta batez bestekoa 330 €/biztanlekoa da. OHZri dagokion ratioa (172 €/bizt.) nabarmentzen da gainerakoetan, baina hiriburuek eta 1.000 biztanletik beherako udalerriek zerga honetako presio fiskal altuena dutela (181 eta 183 €/biztanleko, hurrenez hurren) ikusten da.
- Aurreko urtearekin alderatuta biztanleko diru-sarrerak murrizten dituen tokiko zerga bakarrak JEZa da. Gainerakoek mantendu edo aurrera egin dute eta horien artean, EIOZaren hazkundera nabarmentzen da, % 14,4. Azken zerga hori, bere kargapean dauden jardueretan izandako beherakadatik, 2007an lortutako 57 €/bizt. maximotik urrun dago.
- Biztanle bakoitzeko presio fiskal txikiena 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek (hiriburuak izan ezik) dute, eta altuena hiriburuek, nahiz eta Bilboko datua (283 €/bizt) EAEko batez bestekoa baino txikiagoa izan. Bestalde, Vitoria-Gasteizek (405 €/bizt.) eta Donostiak (445 €/bizt.) Bilbok baino askoz handiagoa dute biztanle bakoitzeko presio fiskala.

### 2.7 Koadroa: Zerga-bilketaren eraginkortasuna (%)

POPULAZIO-MAILA	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
1. <=1000	96,4	94,2	94,8	86,6	95,3	94,6
2. 1.001-5.000	96,8	91,7	78,9	97,1	84,7	94,0
3. 5.001-20.000	95,7	92,9	72,3	87,5	84,4	91,8
4. >20.000 (Hiriburuak ezik)	95,9	92,8	79,7	83,2	82,8	91,9
5. Hiriburuak	95,8	92,7	81,2	59,0	64,2	86,6
VITORIA - GASTEIZ	95,4	95,8	76,3	15,5	72,9	81,6
BILBAO	95,9	89,8	81,8	71,2	68,3	87,9
DONOSTIA	96,0	93,7	89,0	87,3	42,6	91,1
<b>EAE</b>	<b>95,9</b>	<b>92,7</b>	<b>79,7</b>	<b>77,6</b>	<b>77,9</b>	<b>90,1</b>

Bilketaren eraginkortasunari erreparatuz gero (diru-bilketa likidoa / aitorituriko eskubide garbiak), honako hauek nabarmendu behar dira:

- Eraginkortasun globala pixka bat hobetu da 2016an, eta % 90,1ean kokatu da. Populazio-mailen arabera, diru-bilketaren eraginkortasuna hiriburuen % 86,6 eta 1.000 biztanletik beherako udalerrien % 94,6 artean dago.

- Emaitarik onena OHZri dagokio, ia % 96, tamainaren arabera alde nabarmenik izan gabe.
- 2015arekin alderatuta, OHZren (+% 0,4) eta JEZaren (+% 5,7) zerga-bilketako eraginkortasun-adierazleak igo dira, eta TMIZrena mantendu da. Aitzitik, HLBGZren (-% 0,7) eta EIOZaren (-% 2,4) balioak jaitsi egin dira.
- Hiriburuen artean, daturik onena Donostian izan da (% 91,1), Vitoria-Gasteizen (% 81,6) baino askoz handiagoa. Datu hori JEZaren kobrantza egutegiak markatu du<sup>4</sup>.

### 2.8 Koadroa: Presio fiskal handiena duten udalerriak<sup>5</sup> (€/bizt.)

UDALERRIAK	POP.-MAILA	LH	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
ZIERBENA	2	BIZKAIA	129	55	-	1.854	234	2.272
ADUNA	1	GIPUZKOA	448	175	63	176	1.329	2.191
ZAMUDIO	2	BIZKAIA	608	117	48	608	60	1.440
KUARTANGO	1	ARABA	733	60	234	101	25	1.154
IZURTZA	1	BIZKAIA	522	62	-	397	34	1.015
LOIU	2	BIZKAIA	271	125	15	412	166	988
OLABERRIA	1	GIPUZKOA	387	107	40	232	204	970
LANTARON	1	ARABA	368	60	-	324	80	832
LEGUTIO	2	ARABA	457	61	32	134	21	705
LAGUARDIA	2	ARABA	405	65	62	78	84	694
<b>EAE</b>			<b>172</b>	<b>60</b>	<b>32</b>	<b>43</b>	<b>23</b>	<b>330</b>

Azkenik, presio fiskal handiena duten udalerrien rankingari dagokionez:

- Zerrendako buru diren udalerriek populazio txikia dute. Udalerri horiek rankingean sartzearen arrazoia da haietan azpiegitura garrantzitsuak (Portua, Teknologi parkea) eta/edo enpresa handiak baitaude.
- Hala, Zierbena lehenengo lekuan dago, bertan Bilboko Portua eta Petronor, Bahía de Bizkaia Electricidad edo Bahía de Bizkaia Gas bezalako enpresa handiak daudelako.
- Deigarria da Kuartangoko biztanleko OHZ altua. Izan ere, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak hiritar eta landatar ondasun higiezin zergapetzen ditu baita ezaugarri bereziak dituzten ondasunak ere. Horien artean parke eolikoak daude, eta Kuartangon Badaiako Parke Eolika dago.

<sup>4</sup> Arabako hiriburuan zerga hau ordaintzeko epeak hurrengo ekitaldiko otsailera arte irauten du.

<sup>5</sup> Presio fiskala: zuzeneko eta zeharkako zergen batuketara.

- Adunako EIOZaren zenbatekoa ere aipagarria da. Horri dagokionez, adierazi behar da 2016an Irizarren lantegi berria eraiki zela herrian.





### 3. GASTUAK

#### 3.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA

Udal-sektore publikoko gastu kontsolidatuen bilakaerari eta ezaugarriei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- 2016an, egindako gastu bateratuaren zenbatekoa 3.432 milioi eurokoa izan da, 2015ean baino % 1,5 gutxiago. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko urteko BPGdaren % 4,8 da.
- Gastuaren murrizketa ia talde guztietan gertatu da, bi salbuespen hauekin: udalak (+% 0,1) eta enpresak ez diren udalez gaindiko erakundeak (+% 2,0). Enpresa publikoen gastua ia 54 milioi euro jaitsi da. Portzentajea, beharakada esanguratsuena tokiko erakunde txikietan gertatu da (-% 14,8).


#### 3.1 Koadroa: Udal-arlo publikoaren gastu bateratuen bilakaera. EAE guztira

EAE	2015		2016		Δ %
	Mila €	%	Mila €	%	
<b>Udalak eta beren mendeko entitateak</b>					
Tokiko entitate txikiak	26.634	0,8	22.683	0,7	-14,8
Adm.erakunde autonomoak	214.488	6,2	210.975	6,1	-1,6
Sozietate publikoak	338.152	9,7	296.251	8,6	-12,4
Udalerriak	2.479.804	71,1	2.481.943	72,3	0,1
<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>3.059.077</b>	<b>87,8</b>	<b>3.011.851</b>	<b>87,8</b>	<b>-1,5</b>
<b>Udalaz gaindiko entitateak</b>					
Mankom., partzuergoak, kuadrillak...	292.077	8,4	297.774	8,7	2,0
Udalaz gaindiko enpresak	134.679	3,9	122.665	3,6	-8,9
<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>426.756</b>	<b>12,2</b>	<b>420.439</b>	<b>12,2</b>	<b>-1,5</b>
<b>GASTUAK, GUZTIRA BATERATUAK</b>	<b>3.485.834</b>	<b>100,0</b>	<b>3.432.290</b>	<b>100,0</b>	<b>-1,5</b>


- Sailkapen ekonomikoaren arabera, funtzionamendu-gastuak zertxobait igo dira eta gastu guztien % 77,2ko pisua izan dute. Talde honen barruan langileen gastuei dagokien pisua % 34,5era igo da, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuarenak, ordea, ez du aldaketa nabarmenik izan 2015. urtearekin alderatuta.

- Inbertsioaren pisua ia puntu bat jaitsi da, eta guztizko finkatuaren % 11,3 izan da.
- Lurreldeka, Araban (% 6,2) eta Gipuzkoan (% 5,8) finantza-kargak pisu handiago du Bizkaian baino (% 3,0). Arabako langile-gastuak (% 39,9) beste bi lurreldeetakoak baino handiagoak dira, ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuen kaltetan.

### 3.1 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa orokorra eta lurreldeka: Egitura



### 3.2 Grafikoa: Gastuen lurrelde banaketa. 2016 (%)



- 2015arekin alderatuta, gastuak hiru kapitulutan jaitsi dira: ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (-% 2,1), inbertsio errealak (-% 9,3) eta finantza pasiboak (-% 12,5).
- Ondorioz, funtzionamendu-gastuak % 0,7 jaitsi dira, nahiz eta langileen gastuak igo (% 1,2) eta inbertsio gastuak ere % 6,3 txikiagotu dira, kapital-transferentziak handitu arren (% 71,7).
- Lurraldeka, Arabako udal-sektoreak % 11,7 egin du behera 2015arekin alderatuta. Bizkaian (% 0,8) eta Gipuzkoan (% 0,1), ordea, hazkundera izan dute.
- Inbertsio gastuak jaitsi egin dira Bizkaian (-% 6,8) eta, batez ere, Araban (-% 30,5). Gipuzkoak, aldiz, gastu horiek % 5,4 igo ditu.
- Karga finantzarioa Araban eta Gipuzkoan jaitsi da; Bizkaian, berriz, % 51,8 hazi da. Horrela, 2016an, finantza-karga gastu guztien % 3,1 izan da Bizkaian, % 5,8 Gipuzkoan eta % 6,2 Araban.

### 3.2 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka 2016an eta bilakaera aurreko urtearekiko.

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Mila €	Δ % 16/15	Mila €	Δ % 16/15	Mila €	Δ % 16/15	Mila €	Δ % 16/15
Pertsonal gastuak	204.452	0,8	578.049	0,0	401.613	3,0	1.184.114	1,2
Gastuak ondasun arrunt eta zerb.	197.624	-10,5	722.884	0,2	545.567	-1,6	1.466.075	-2,1
<b>Funtzionamendu-gastuak</b>	<b>402.076</b>	<b>-5,1</b>	<b>1.300.933</b>	<b>0,1</b>	<b>947.180</b>	<b>0,3</b>	<b>2.650.189</b>	<b>-0,7</b>
Inbertsio errealak	49.728	-30,3	188.413	-8,3	148.925	-0,6	387.067	-9,3
Kapital transferentziak	319	-46,7	9.436	37,5	18.500	105,7	28.255	71,7
<b>Inbertsio-gastuak</b>	<b>50.047</b>	<b>-30,5</b>	<b>197.849</b>	<b>-6,8</b>	<b>167.425</b>	<b>5,4</b>	<b>415.321</b>	<b>-6,3</b>
Transferentzia arruntak	28.522	10,6	105.061	-0,4	57.936	0,6	191.519	1,4
Finantza aktiboak	363	-31,2	15.158	145,3	3.892	-40,4	19.413	46,6
<b>Bestelako gastuak</b>	<b>28.885</b>	<b>9,8</b>	<b>120.219</b>	<b>7,7</b>	<b>61.828</b>	<b>-3,5</b>	<b>210.932</b>	<b>4,4</b>
<b>FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK</b>	<b>481.009</b>	<b>-7,8</b>	<b>1.619.000</b>	<b>-0,3</b>	<b>1.176.433</b>	<b>0,8</b>	<b>3.276.442</b>	<b>-1,1</b>
Finantza gastuak	12.241	163,9	2.203	-57,2	14.655	-20,2	29.099	3,3
Finantza pasiboak	19.565	-63,9	48.855	71,5	58.330	-6,1	126.749	-12,5
<b>Finantza-karga</b>	<b>31.806</b>	<b>-46,0</b>	<b>51.058</b>	<b>51,8</b>	<b>72.984</b>	<b>-9,3</b>	<b>155.848</b>	<b>-9,9</b>
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>512.815</b>	<b>-11,7</b>	<b>1.670.058</b>	<b>0,8</b>	<b>1.249.417</b>	<b>0,1</b>	<b>3.432.290</b>	<b>-1,5</b>

- Udal sektore publikoak 24.545 pertsona batu ditu 2016an, EAEko biztanleria okupatuaren urteko batez bestekoaren % 2,7. 2015ean langile zenbatekoa 24.341 izan zen.

### 3.3 Koadroa: Udal-arlo publikoaren biztanleria okupatua

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Udal-arlo publikoko langileak(1)	4.632	11.229	8.684	24.545
Urteko batez besteko langileak, lurralde historikoka (2)	135.700	466.900	300.700	903.300
<b>EHUNEKOA (1) / (2)</b>	<b>% 3,4</b>	<b>% 2,4</b>	<b>% 2,9</b>	<b>% 2,7</b>

Azkenik, udal-sektore publikoko biztanle bakoitzeko gastuen azterketak agerian uzten du honako hau:

- Biztanleko gastu guztiak 28 € jaitsi dira eta batez bestekoa 1.577 eurotan dago. Horietatik 1.218 funtzionamendu-gastuei dagozkie. Arabak erregistratzen du murrizketarik handiena (-217 €); Gipuzkoan (-3 €) eta Bizkaian (11 €) aldaketak txikiagoak izan dira. Gipuzkoa da oraindik batez besteko altuena duena (1.753 €/bizt.), Arabaren (1.585 €/bizt.) eta Bizkaiaren (1.466 €/bizt.) aurretik.
- Araban gertatu dira aldaketa handienak, eta aurretik aipatu den bezala, Vitoria-Gasteizko enpresa publikoen gorabehera gogorren ondoriozkoak dira. Bizkaiko eta Gipuzkoako balioak ia ez dira aldatu 2015. urtearekin alderatuta.
- Gipuzkoak per capita inbertsiorik handiena (235 €/ bizt.) erakusten du eta, gainera, 2016an handitu duen lurralde bakarra izan da. Funtzionamendu-gastuei dagokienez, Bizkaiari dagokio ratorik txikiena, eta Gipuzkoari, berriz, altuena (1.329 €/ bizt.).

### 3.4 Koadroa: Biztanleko gastuak (euro)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Funtzionamendu-gastuak	1.243	1.142	1.329	1.218
Inbertsio-gastuak	155	174	235	191
Bestelako gastuak	89	106	87	97
<b>FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK</b>	<b>1.486</b>	<b>1.421</b>	<b>1.650</b>	<b>1.506</b>
Finantza-karga	98	45	102	72
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>1.585</b>	<b>1.466</b>	<b>1.753</b>	<b>1.577</b>

## 3.2 POPULAZIO-MAILAKA

Populazio-mailak kontuan hartuta, EAEko udal-sektorearen gastu kontsolidatuaren egiturak honako hau erakusten du:

- Funtzionamendu-gastuek protagonismo handiagoa hartzen dute biztanleriak gora egin ahala, eta inbertsioek garrantzi erlatibo handiagoa herri txikietan.
- Gastu multzoen 2016ko bilakaeraren ondorioz, funtzionamendu-gastuen pisuak gora egin du, EAEn batez besteko % 75,5ekoa izan arte, eta inbertsioen gastuak behera egin du % 10,6ko pisura jaitsi arte.

### 3.3 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka: Egitura



- Gastuak murriztu egin dira populazio-maila guztietan, hiriburuak ez diren 20.000 biztanletik gorako udalerrietan izan ezik. Finantza-karga kanpo utzita, gastuak ere murriztu egin dira 2015ekiko (-% 0,3) eta bakarrik igo dira hiriburuetan.
- Funtzionamendu-gastuen barruan, pertsonal gastuek gora egin dute populazio-maila guztietan. Ondasun eta zerbitzuen erosketek, aldiz, behera egin dute, hiriburuak ez diren 20.000 biztanletik gorako udalerrietan izan ezik.

- Biztanle handieneko bi populazio-mailetan finantza-karga gehiago aldatu da, baina kontrako norabidean. Horrela, hiriburuek gastu hori % 35,8 murriztu duten bitartean, 20.000 biztanletik gorako gainerako udalerriek % 38,9 handitu dute.
- Inbertsio gastuek % 2,3ko murrizketa izan dute eta beherakada orokorra izan da, hiriburuetan izan ezik.

### 3.5 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera


	<=1.000		1.001-5.000		5.001-20.000		>20.000 hirib. Ezik		Hiriburuak	
	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %
Pertsonal gastuak	17.785	0,9	62.177	1,6	245.599	0,6	292.523	0,6	479.907	1,6
Gast. ondasun arrunt eta zerb.	23.453	-4,0	98.231	-1,2	305.420	-1,2	322.541	1,5	496.547	-3,5
<b>Funtzionamendu-gastuak</b>	<b>41.238</b>	<b>-2,0</b>	<b>160.408</b>	<b>-0,1</b>	<b>551.019</b>	<b>-0,4</b>	<b>615.064</b>	<b>1,1</b>	<b>976.454</b>	<b>-1,0</b>
Inbertsio errealak	21.619	-8,1	38.438	-23,0	81.906	-5,6	62.660	-10,0	124.806	4,1
Kapital transferentziak	128	-70,5	1.029	58,8	2.643	13,8	4.849	-7,4	22.533	111,3
<b>Inbertsio-gastuak</b>	<b>21.746</b>	<b>-9,2</b>	<b>39.467</b>	<b>-21,9</b>	<b>84.549</b>	<b>-5,1</b>	<b>67.509</b>	<b>-9,8</b>	<b>147.339</b>	<b>12,8</b>
Transferentzia arruntak	6.789	-1,6	26.087	0,6	74.826	1,5	50.437	4,8	103.542	5,5
Finantza aktiboak	150	-61,2	607	66,2	2.162	-33,7	1.292	-68,4	1.911	19,2
<b>Bestelako gastuak</b>	<b>6.939</b>	<b>-4,8</b>	<b>26.693</b>	<b>1,5</b>	<b>76.988</b>	<b>0,0</b>	<b>51.730</b>	<b>-1,0</b>	<b>105.454</b>	<b>5,8</b>
<b>FIN. KARGARIK GABEKO GAST.</b>	<b>69.923</b>	<b>-4,6</b>	<b>226.568</b>	<b>-4,6</b>	<b>712.555</b>	<b>-0,9</b>	<b>734.303</b>	<b>-0,2</b>	<b>1.229.246</b>	<b>1,0</b>
Finantza gastuak	164	-32,4	742	-56,6	2.172	-19,0	1.610	-61,8	14.256	123,2
Finantza pasiboak	3.760	16,1	11.100	-0,3	25.715	-4,7	42.226	54,4	33.037	-50,9
<b>Finantza-karga</b>	<b>3.924</b>	<b>12,7</b>	<b>11.842</b>	<b>-7,8</b>	<b>27.887</b>	<b>-6,0</b>	<b>43.836</b>	<b>38,9</b>	<b>47.294</b>	<b>-35,8</b>
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>73.847</b>	<b>-3,8</b>	<b>238.410</b>	<b>-4,8</b>	<b>740.443</b>	<b>-1,1</b>	<b>778.139</b>	<b>1,4</b>	<b>1.276.540</b>	<b>-1,1</b>

Populazio mailaren araberako biztanleko gastuei dagokienez, honako hau ikus daiteke:

- Sarreretan bezala, 4. mailak biztanleko zenbateko txikiena du (1.252 €/bizt.), hiriburuena (1.668 €/bizt.) eta udalerrri txikienena (1.671 €/bizt.) baino dezente baxuagoa.
- Gastuen multzo nagusiari dagokionez, funtzionamendu-gastuak, txikienak 2. populazio-mailarenak dira, eta hiriburuena, handienak.

- Hiriburuei dagozkien zenbatekoak honako hauek izan dira:
  - Vitoria-Gasteiz: 1.572 €/bizt.
  - Donostia: 2.120 €/bizt.
  - Bilbo: 1.498 €/bizt.
- Biztanle bakoitzeko gastuak egonkor mantendu dira Bilbon. Hala ere, Vitoria-Gasteizen 241€ jaitsi dira (udalerriko hirigintza enpresen aldakuntzatatik, batez ere) eta Donostian 222€ handitu dira, ratio altuenarekin nabarmenduta (udalarena eta, oro har, udal erakunde guztien gastuak gehitu egin dira).

3.4 Grafikoa: Gastuak biztanleko (€)







## 4. ZORPETZEA

Zorpetze-indizea, finantza-karga ordaintzeko erabiltzen den diru-sarrerara arrunten ehunekoa azaltzen duena, jaitsi da eta % 4,7koa da 2016an, 2015ean baino 0,4 puntu gutxiago. Indizea puntu bat gehiago izan da Bizkaian, % 3,1eraino iritsi arte, eta beste bi lurraldeetan, batez ere Araban, murriztu da; hala eta guztiz ere, lurralde horrek balio altuena izan du (% 6,4).

### 4.1 Koadroa: Zorpetze-indizea orokorra eta lurraldeka (mila €)

	INTERESAK 3. KAP. GASTUAK	AMORTIZAZIOA 9. KAP. GASTUAK	FINANTZA- KARGA	DIRU-SARRERA ARRUNTAK	ZORPETZE- INDIZEA
			(1)	(2)	(1)/(2)
Araba	12.241	19.565	31.806	497.698	% 6,4
Bizkaia	2.203	48.855	51.058	1.629.119	% 3,1
Gipuzkoa	14.655	58.330	72.984	1.214.303	% 6,0
<b>Guztira</b>	<b>29.099</b>	<b>126.749</b>	<b>155.848</b>	<b>3.341.120</b>	<b>% 4,7</b>

Lehen eta laugarren populazio-mailetan gora egin du zorpetze-indizeak. Biek, bigarren populazio-mailarekin batera, batez bestekoaren gaineko kopurua izan dute.

### 4.2 Koadroa: Zorpetze-indizea populazio-mailaka (mila €)

	INTERESAK 3. KAP. GASTUAK	AMORTIZAZIOA 9. KAP. GASTUAK	FINANTZA- KARGA	DIRU-SARRERA ARRUNTAK	ZORPETZE- INDIZEA
			(1)	(2)	(1)/(2)
1.Pop.-maila	164	3.760	3.924	64.649	% 6,1
2.Pop.-maila	742	11.100	11.842	233.761	% 5,1
3.Pop.-maila	2.172	25.715	27.887	736.796	% 3,8
4.Pop.-maila	1.610	42.226	43.836	753.136	% 5,8
5.Pop.-maila	14.256	33.037	47.294	1.253.657	% 3,8
<b>Guztira</b>	<b>18.944</b>	<b>115.839</b>	<b>134.783</b>	<b>3.041.999</b>	<b>% 4,4</b>

Guztizko zor biziari dagokionez (668 M€), 2015eko datuarekin alderatuta, % 6,6 jaitsi da. Gipuzkoak guztizkoaren % 56 biltzen du eta gainerakoa Arabaren eta Bizkaiaren artean nahiko modu orekatuan banatzen da. Hiru lurraldeek zorraren pisua, BPGdaren ehunekoan, murriztu dute, baina ratio

txikiena Bizkaiari dagokio (% 0,4), Arabari (% 1,2) eta Gipuzkoari (% 1,6) dagozkienak baino baxuagoa.

Zor biziaren 668 milioi horietatik, 77,6 milioi (% 11,6) udalaz gaindiko entitateei dagokie eta, horietatik, 75,6 milioi Gipuzkoakoak dira.

#### 4.3 Koadroa: Zor bizi formalizatua orokorra eta lurraldeka

	2016 Mila euro	Lurralde- banaketa %	BPGdaren gaineko %	Δ % 2016/2015	Biztanleko zor bizia €
Araba	136.993	% 20,5	% 1,2	-% 4,3	423
Bizkaia	155.610	% 23,3	% 0,4	-% 6,4	137
Gipuzkoa	375.412	% 56,2	% 1,6	-% 7,5	527
<b>Guztira</b>	<b>668.014</b>	<b>% 100,0</b>	<b>% 0,9</b>	<b>-% 6,6</b>	<b>307</b>

Biztanleko zorraren murrizketa orokorra da, eta zenbateko handiena hiriburuen populazio-mailari dagokio (373 €/bizt.). Gipuzkoak, populazio-maila guztietan, balio altuenak ditu eta bereziki Donostia nabarmentzen da, 899 €/biztanleko zorra duena, 2015eko datuekin alderatuta ia aldaketarik gabe. Bilbok, bestalde, zor bizirik ez du, oraindik.

#### 4.4 Koadroa: Lurraldeka eta populazio-mailaka biztanleko zor bizi formalizatua (€)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
1. Populazio-maila	220	109	271	187
2. Populazio-maila	177	249	318	254
3. Populazio-maila	154	163	217	191
4. Populazio-maila		200	312	231
5. Populazio-maila	507	0	899	373
<b>Guztira</b>	<b>423</b>	<b>135</b>	<b>421</b>	<b>271</b>

## 5. EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA

### 5.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA

EAEko udal-sektore publikoaren ekonomia eta finantza egoerari dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- 2015. urtearekin alderatuta, finantza gaitasunak 26,1 milioi euroko igoera izan du. Aurrerapen hori, kapital-eraketak % 13,3 eta aurrezki gordinak % 1,6 izandako beherakadaren ondorioa da. Termino erlatiboetan, BPGdaren % 0,35 da.
- 2016an, hiru lurraldeek finantza gaitasuna positiboa erakutsi dute; eta zorpetze garbia hiru lurraldeetan txikitu da.
- Aurrekontu-superabita hiru lurraldeetan hazi da, baina hobekuntza handiagoa izan da Araban (urteko zorpetze garbiaren portaera hobea dela eta) eta Gipuzkoan (finantza gaitasuna hobetu delako).

#### 5.1 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera lurraldeka (mila €)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Diru-sarrera arruntak	497.698	1.629.119	1.214.303	3.341.120
Gastu arruntak	442.839	1.408.196	1.019.771	2.870.806
Aurrezki gordina	54.859	220.923	194.532	470.314
Kapital diru-sarrerak	20.548	88.186	89.025	197.758
Kapital gastuak	50.047	197.849	167.425	415.321
Kapital eraketa	29.499	109.664	78.400	217.563
<b>Finantza Gaitasuna (+) / Beharra (-)</b>	<b>25.360</b>	<b>111.259</b>	<b>116.132</b>	<b>252.751</b>
8. Kapituluak. Diru-sarrerak	617	11.185	4.414	16.217
8. Kapituluak. Gastuak	363	15.158	3.892	19.413
<b>Zorpetze garbia. Beharra (-) / Gaitasuna (+)</b>	<b>25.614</b>	<b>107.286</b>	<b>116.654</b>	<b>249.554</b>
9. Kapituluak. Diru-sarrerak	14.223	27.305	26.499	68.027
9. Kapituluak. Gastuak	19.565	48.855	58.330	126.749
Urteko zorpetze garbia	-5.342	-21.550	-31.831	-58.722
<b>Aurrekontuko Defizita (-) / Superabita (+)</b>	<b>20.272</b>	<b>85.736</b>	<b>84.824</b>	<b>190.832</b>

## 5.2 POPULAZIO-MAILAKA

- Aurreko urtean bezala, populazio-maila guztiek finantza gaitasuna erakutsi dute. Edonola ere, bat, lau eta bost populazio-mailetan atzerakada antzeman da eta EAEko emaitza globalean ere bai.
- Populazio-maila guztietan egindako amortizazioek jasotako maileguzen zenbatekoak gainditu dituzte; beraz, zorpetze garbia negatiboa izan da guztietan.
- 2016an, populazio-maila guztiek aurrekontu superabita izan dute.

### 5.2 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera populazio-mailaka (mila €)

	POPULAZIO-MAILAK					GUZTIRA
	1.	2.	3.	4.	5.	
Diru-sarrera arruntak	64.649	233.761	736.796	753.136	1.253.657	3.041.999
Gastu arruntak	48.191	187.236	628.017	667.112	1.094.252	2.624.808
Aurrezki gordina	16.458	46.525	108.779	86.024	159.405	417.191
Kapital diru-sarrerak	10.333	19.384	36.974	24.661	52.248	143.600
Kapital gastuak	21.746	39.467	84.549	67.509	147.339	360.610
Kapital eraketa	11.413	20.083	47.574	42.848	95.091	217.009
<b>Finantza Gaitasuna (+)/Beharra (-)</b>	5.045	26.442	61.205	43.176	64.314	200.181
8. Kapituluua. Diru-sarrerak	210	566	2.004	1.671	217	4.668
8. Kapituluua. Gastuak	150	607	2.162	1.292	1.911	6.122
<b>Zorpetze garbia. Beharra (-)/Gaitasuna (+)</b>	5.104	26.402	61.047	43.555	62.620	198.728
9. Kapituluua. Diru-sarrerak	434	7.650	9.406	20.364	29.763	67.617
9. Kapituluua-gastuak	3.760	11.100	25.715	42.226	33.037	115.839
Urteko zorpetze garbia	-3.326	-3.450	-16.309	-21.862	-3.275	-48.222
<b>Aurrekontuko Defizita (-)/Superabita (+)</b>	1.778	22.951	44.738	21.693	59.345	150.506

## 6. ZERGA ITUNDUETAN UDAL PARTE-HARTZEA

Aipatu den bezala, udal-arlo publikoaren diru-sarrerren iturri nagusia foru-aldundiek egindako transferentzia arruntak dira. Hain zuzen ere, 2016. urtean udal entitateen diru-sarrera guztien % 45 izan dira eta udalaz gaindiko erakundeak sartzen badira, % 41.

Transferentzia horietatik, % 93 Ekonomia Itunaren kudeaketatik EAerako bideratzen diren zerga orokorren (PFEZ, Sozietateen gaineko zerga, BEZ...) etekinetako partaidetzari dagokio. Batzar Nagusiek onetsitako udal finantzaketari buruzko foru-arauek arautzen dituzte bai partaidetza hori, bai udal-entitateen artean banatzeko irizpideak, lurralde historiko bakoitzean.

Arau horien arabera, ekitaldi bakoitzeko behin-behineko partaidetza diru-sarrerren aurrekontu-aurreikuspenak oinarri hartuta kalkulatzen da, eta ekitaldia itxi eta benetako bilketaren datuak jakin ondoren kitatzen da.

Horrela, 2016. ekitaldiko udal partaidetza itunduetako zergetan, foru aldundien aurrekontu eta likidazioen arabera, honako hauek izan dira:

### 6.1 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzea

	Behin behinekoa Mila €	Likidazioa Mila €	Likidazioa biztanleko €/ bizt.
<b>ARABA</b>	214.165	204.704	633
<b>BIZKAIA</b>	824.062	762.250	669
<b>GIPUZKOA</b>	458.902	449.336	630
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.497.128</b>	<b>1.416.290</b>	<b>651</b>

Behin betiko datuan, hiru lurraldeek desbideratze negatiboa izan dute aurrekontuarekiko: -% 4,4 Araban, -% 7,5 Bizkaian eta -% 2,1 Gipuzkoan.

Baliabideen Banaketarako Metodologiaren martxoaren 23ko 2/2007 legea indarrean egon den urteetan toki-erakundeek itunduetako zergetan izan duten behin betiko partaidetza, ondoko koadroan ikus daiteke.

## 6.2 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzearen bilakaera (mila €)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
<b>2007</b>	206.239	830.078	424.057	1.460.375
<b>2008</b>	219.394	750.376	404.433	1.374.202
<b>2009</b>	171.938	672.382	342.982	1.187.302
<b>2010</b>	200.822	750.865	392.492	1.344.179
<b>2011</b>	176.509	733.169	355.576	1.265.254
<b>2012</b>	234.309	759.403	385.314	1.379.026
<b>2013</b>	169.655	733.188	387.879	1.290.723
<b>2014</b>	185.581	752.643	418.901	1.357.125
<b>2015</b>	211.446	736.348	437.002	1.384.795
<b>2016</b>	204.704	762.250	449.336	1.416.290

Bilakaera hori EAEko diru-bilketak garai honetan zehar izandakoarekin bat dator, eta krisi ekonomikoaren lehen etaparekin bat etorriz, 2009. eta 2011. ekitaldiek portaera okerreana izan zuten. Bestalde, aipatu beharra dago 2012. ekitaldiko emaitza ezohikoa izan zela, sarreretan Estatu dirulaguntzen berreskurapena izan zelako.

Populazio-mailaka sailkatuta, foru-aldundiek baldintzarik gabeko udal-finantzaketaren likidazioari buruz emandako informaziotik, honako datu hauek ondorioztatu dira:

## 6.3 Koadroa: Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka (€)

	ARABA*	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
1. <=1000	465	937	778	759
2. 1.001-5.000	494	663	602	614
3. 5.001-20.000	548	584	604	593
4. >20.000 (Hiriburuak ezik)	-	567	617	580
5. Hiriburuak	643	843	680	741
<b>GUZTIRA</b>	<b>610</b>	<b>668</b>	<b>629</b>	<b>647</b>

\*Udalerriak eta Kontzejuak bakarrik

Populazio-mailaren arabera aurkeztu diren datuak toki-erakundeek 2016an jasotako zenbatekoak dira. Araban, batez bestekoa 610 €/bizt. izan da, baina kontuan hartu behar da ez dela taulan sartu:

- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana (OZFP) eta Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren baitako obrak finantzatzeko Aparteko Funtza (1,3 M€).
- Kuadrillen partaidetza (2,8 M€).
- Auzo Harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak gauzatzeko laguntza programak (3,2 M€).

Kontzeptu hauek guztiak kontuan hartuta, Arabako biztanleko partaidetza 633 eurokoa da.

Bizkaian (937 €/bizt.) eta Gipuzkoan (778 €/bizt.) 1. populazio-mailaren finantzaketa handiagoa da, udalerriek finantzaketan zenbateko finko baitute eta ondorioz, udalerrri txikiak abantaila lortzen dute: Bizkaian 81.137 € dira eta Gipuzkoan 84.142 € (200 biztanle baino txikiagoak diren udalerrientzat) eta 36.061 € (601 eta 1.000 biztanleen arteko udalerrientzat) tartean dago kopurua.

Udalerrri txikiak alde batera utzita, Gipuzkoako biztanleko finantzaketa antzekoa da populazio-maila guztietan. Erdiko 3 populazio-mailen artean ia ez dago alderik. Hiriburuaren prima dela eta (Foru Funtzaren % 2,15), Donostiako finantziarioa apur bat altuagoa izan da.

Bizkaian, 1. populazio-mailaren finantzaketaz gain, aipagarria da hiriburuaren biztanleko zenbateko handia, Bilbo (843 €/bizt.) argi eta garbi Donostia (680 €/bizt.) eta Vitoria-Gasteizen (643 €/bizt.) aurretik jartzen duena. Bilboko foru transferentziako diru-sarrerak 288,6 milioi eurokoak izan dira eta zenbatekoa urtero eguneratzen da Udalkutxa Foru Funtzak duen aldaketaren arabera. Erdiko 3 populazio-mailek finantzaketa txikiagoa lortu dute eta jaisteko joera du biztanleen kopurua handitzen den neurrian.





## **7. ERANSKINA**



**1. KOADROA. ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK. 2016**
**ERAKUNDE GUZTIAK :UDAL ERAKUNDEAK ETA UDALEN ELKARTEAK**
**Mila €**

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
<b>1</b>	<b>Zuzeneko zergak</b>	<b>122.615</b>	<b>302.717</b>	<b>241.890</b>	<b>667.222</b>
112	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	66.802	168.177	138.244	373.223
113	Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	18.270	64.269	48.385	130.924
114	Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	23.854	19.360	26.444	69.658
130	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	13.689	50.911	28.817	93.416
19	Iraungitako zuzeneko zergak	-	-	-	-
<b>2</b>	<b>Zeharkako zergak</b>	<b>8.040</b>	<b>26.509</b>	<b>16.208</b>	<b>50.756</b>
282	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	8.032	26.498	16.208	50.738
